*Ekaia, 2023, 43, 117-138*
*https://doi.org/10.1387/ekaia.23461*

ekaia
ZIENTZIA eta TEKNOLOGIA ALDIZKARIA

*ISSN 0214-9001 – eISSN 2444-3255*

# Antibiotikoen erresistentziak agroekosistemetan

(Antibiotic resistance in agroecosystems)

*Leire Jauregi*, Carlos Garbisu, Lur Epelde*

NEIKER-Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, Basque Research & Technology Alliance (BRTA) elkarteko kidea (48160 Derio, Espainia)

**LABURPENA:** Antibiotikoak ezinbesteko tresna bilakatu dira medikuntza eta albaitaritzan bakterio-infekzioei aurre egiteko. Antibiotikoen gehiegizko erabilerak eta erabilera okerrak osasun-erronka garrantzitsuenetako bat bizkortu dute, bakterioek antibiotikoekiko erresistentzia zabala garatu baitute. Mundu mailako arazo hau Osasun Bakarraren ikuspegitik aztertu behar da, antibiotikoekiko erresistentziak gizakien, animalien eta ingurumenaren artean partekatu, barreiatu eta ugaritzen baitira. Adibidez, lurzoruetan ongarri organikoak aplikatzeak lurren osasuna eta uzten etekina hobetu ditzake. Hala ere, praktika honek arriskuak dakartza, lurzorura iritsi baitaitezke gizaki nahiz abereek guztiz metabolizatu ez dituzten antibiotikoak. Antibiotikoa hedatzeaz gain, antibiotikoekiko erresistenteak diren geneak, bakterioak eta elementu genetiko mugikorrak barreiatzea dakar mota honetako ongarri organikoen erabilerak. Izan ere, lurzoruetan etengabe antibiotikoak sartzeak mehatxu potentziala sortzen du bertako bakterioentzat; bakterio antibiotikoekiko erresistenteak ugaritu egiten dira eta bertako bakterio-komunitateen bioaniztasuna aldatzen dute. Barreiadura zabal honen ondorioz, gero eta gehiago, antibiotikoen erabilera ez da eraginkorra izaten ari erresistente diren patogenoen infekzioen tratamenduetan. Berrikuspen honetan, lehenik, antibiotikoen nahiz antibiotikoekiko erresistente diren geneen jatorria eta mekanismoak azaltzen dira. Jarraian, lurzoruetan egiten den giza edo animalia-jatorriko ongarri organikoen erabilera aipatzen da, antibiotikoak eta erresistentziak ingurumenean barreiatzeko sarbide garrantzitsuak direlako. Ondoren, antibiotikoekiko erresistentziek ingurumenean duten eragina azaltzen da, esposizio-bidea jarraituz kultiboetatik gizakietara iritsi arte. Azkenik, abereetatik eratorritako ongarri organikoetan antibiotikoekiko erresistentzien arriskua gutxitzeko erabilgarriak izan litezkeen kudeaketa-prozesuak proposatzen ditugu.

HITZ GAKOAK: antibiotikoak; antibiotikoekiko erresistentzia-geneak; lurzoruak; ongarri organikoak; Osasun Bakarra.

***ABSTRACT:*** *Antibiotics have become an indispensable tool to combat bacterial infections in medicine and veterinary medicine. The abuse and misuse of antibiotics has led to the emergence of one of the most important health challenges, as bacteria have developed widespread resistance to antibiotics. This global problem must be analysed from a One Health perspective, as antibiotic resistance is shared, spread and multiplied between humans, animals and the environment. For example, the application of organic fertilizers to soil can improve soil health and crop yields. However, this practice carries risks, as antibiotics not fully metabolised by humans or animals can find their way to soil. In addition to the antibiotics, the use of such organic fertilisers involves the spread of antibiotic-resistant genes, antibiotic-resistant bacteria and mobile genetic elements. Indeed, the continuous introduction of antibiotics into soils creates a potential threat to indigenous bacteria; antibiotic-resistant bacteria multiply and alter the biodiversity of indigenous bacterial communities. This wide dispersal makes the use of antibiotics increasingly ineffective in the treatment of pathogenic resistant bacterial infections. This review first tries to explain the origin and mechanisms of antibiotic-resistant genes and antibiotics. Next, the use of organic fertilisers of human or animal origin in soils is mentioned, as they are a major source for the spread of antibiotics and antibiotic resistance in the environment. The environmental impact of antibiotic resistance is then explained, following the exposure pathway from crops to humans. Finally, we suggest using some management processes that could be useful to reduce the risk of antibiotic resistance in livestock-derived organic fertilisers.*

*KEYWORDS: antibiotics, antibiotic resistance genes, soil, organic amendments, One Health.*

**** Harremanetan jartzeko / Corresponding author:*** Leire Jauregi. Neiker, Bizkaiko Parke Zientifiko eta Teknologikoa, P812 (48160 Derio). – ljauregi@neiker.eus – https://orcid.org/0000-0001-5388-2375

***Nola aipatu / How to cite:*** Jauregi, Leire; Garbisu, Carlos; Epelde, Lur (2023). «Antibiotikoen erresistentziak agroekosistemetan». *Ekaia*, 43, 2023, 117-138. (https://doi.org/10.1387/ekaia.23461).

Jasotze-data: 2022, otsailak 24; Onartze-data: 2022, apirilak 12.

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © 2023 UPV/EHU

Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

## 1. ANTIBIOTIKOAK ETA ANTIBIOTIKOEKIKO ERRESISTENTZIAK

### 1.1. Antibiotikoen eta antibiotikoekiko gene-erresistenteen jatorria

Antibiotikoak ingurumeneko bakterio eta onddoek jariatutako edo sintetikoki ekoitzitako substantzia kimikoak dira. Antibiotikoek bakterioak hil (bakterizidak) edo haien hazkundea eragozten dute (bakteriostatikoak). Erabilera klinikoko antibiotiko gehienak lurzoruko bakterioetatik eratorriak dira, zuzenean produktu natural gisa edo haien deribatu erdisintetiko moduan. Bereziki, aktinobakteria filumekoak dira garrantzi klinikoa duten antibiotiko gehienen sintesiaren eragileak [1]. Antibiotikoekiko erresistentzia oso hedatuta dago naturan, antibiotikoak sortzen dituzten bakterioek auto -erresistentzia mekanismoak baitituzte [2]. Antibiotikoekiko erresistentzia -geneak, glaziarretan, permafrostean eta baita gizakiak ia inoiz bisitatu ez dituen kobazulo isolatuetan ere aurkitu izan dira [3, 4, 5].

Mikrobiologian, mikroorganismoen hazkuntza inhibitzen duen gutxieneko antibiotiko kontzentrazioari gutxieneko kontzentrazio inhibitzailea deritzo. Normalki, ingurumenean aurkitzen diren antibiotikoen kontzentrazioak askoz baxuagoak dira erabilera klinikoan (dosi terapeutikoak) erabiltzen direnak baino [6, 7]. Antibiotikoek ingurumenean, halako kontzentrazio baxuetan, hainbat funtzio betetzen dituzte: bakterioen arteko komunikazioa, espezieen arteko lehia, ostalari-parasito elkarrekintza, birulentziaren modulazioa, SOS erantzuna, mutagenesia eta biofilmen eraketa [6, 8]. Beraz, lurzoruko organismoek sortutako antibiotikoek komunitate bakterianoen populazioa eta bizimodua erregulatzen dute [9]. Hala ere, ingurumenean antibiotikoen kontzentrazioa gutxieneko kontzentrazio inhibitzailearen azpitik aurkitzen denean ere, fenotipo erresistenteak hauta ditzakete [10]. Horrez gain, antibiotikoek hormesia eragin dezakete; dosi baxuetan bakterioak estimulatu eta dosi altuetan inhibitu ditzaketelako [11]. Inhibizioaren ondorioa ez da nahitaez bakterio lehiakorrak desagerraraztea, ekosistema partekatuetan bakterio batzuen gain-hazkuntza galaraztea baizik, eta horrela, askotariko populazioa bermatzea [9].

Bestalde, metalek antibiotikoekiko erresistentzien agerpena, mantentzea eta hedapena ekar dezakete koselekzioa mekanismoen bidez [12]. Metalekiko eta antibiotikoekiko erresistentzia- hautaketa bi mekanismo nagusitan bereizten da: (i) ko-erresistentzia, erresistentzia-determinatzaile desberdinak elementu genetiko berean aurkitzen direnean; eta (ii) erresistentzia gurutzatua, metalekiko zein antibiotikoekiko erresistentziaren eragilea determinatzaile genetiko bera denean [12]. Metalek agente selektibo gisa joka dezakete antibiotikoekiko erresistentziak sustatzeko orduan; besteak beste, kutsatzaile metalikoen izaera eta kontzentrazioaren, antibiotiko motaren eta haren ekintza-mekanismoaren arabera. Metalek hautespen-presio handia eragiten dute lurzoruan, bai denbora-epe luzeetan kutsadura kro-

nikoak eragiten dituztenean bai denbora-epe laburretan akutuak direnean ere [13, 14].

### 1.2. **Antibiotikoen ekintza-mekanismoak eta erresistentzia-mekanismoak**

Antibiotiko batek bere ekintza-itua lortu behar du, behar besteko kontzentrazio eta denboran, hazkuntza galarazi edo bakterioen heriotza eragin ahal izateko. Antibiotikoen ekintza-mekanismoak bost itutan sailkatzen dira: bakterioen (i) pareta zelularra, (ii) zelula-mintza, (iii) proteinen sintesia, (iv) ADN eta ARNaren erreplikazioa eta, (v) aziko folikoaren metabolismoa [14]. Honez gain, bakterioek hainbat erresistentzia-mekanismo erabil ditzakete antibiotikoen eraginari aurre egiteko: (i) antibiotikoa bakterioan sar dadin saihestu (zelula-pareta edo mintza iragazgaitz bihurtuz), (ii) antibiotikoa aldatzen edo inaktibatzen duten entzimak sortu, (iii) antibiotikoen itua aldatu edo babestu, bien arteko elkarrekintza saihesteko eta, (iv) antibiotikoa bakterioaren kanpoaldera bota efluxu-ponpen bidez [15]. Gainera, bakterioek dituzten erresistentzia-mekanismoak berezkoak edo eskuratutakoak izan daitezke [16]. Berezko erresistentziak, sortzez komunitate edo espezie bereko bakterio guztiek dituzte. Bestetik, eskuratutako erresistentziak bakterio batzuetan daude bakarrik. Bakterio gram-negatiboak berez gram-positiboak baino erresistenteagoak dira zelula-mintzen ezaugarriei eta droga anitzeko fluxu-ponpa askoren adierazpenari esker [17]. Zelula-mintzak iragazkortasun-hesi gisa jarduten du eta, horrela, antibiotikoak bere ituetara iristea eragozten. Droga anitzeko fluxu-ponpek eraginkortasunez murrizten dute antibiotikoen zelula barneko kontzentrazioa.

Antibiotikoekiko erresistentzia-geneek (AEG) bakterioek antibiotikoen presentzian biziraun eta hazteko duten ahalmena bideratzen dute. Geneen transferentzia guraso bakterioetatik bakterio alabetara gertatzen denean, prozesuari transferentzia bertikala deritzo. Bakterioek mutazio-tasa handia dute banantze-prozesuan eta ausazko mutazio batek bakterioari antibiotikoaren presentzian bizirauteko ahalmena ematen badio, populazio bakteriano tolerante bat agertzea ahalbidetuko du eta populazio sentikorra desplazatu [18]. Mutazioek, beraz, egokitzeko estrategia ebolutiboa erakusten dute. Bestalde, geneen transferentzia horizontal (GTH) izeneko harremanaren bitartez, material genetikoaren transferentzia egiten dute ahaide ez diren bi bakteriok. Bakterio-hartzaileek azkar eta eraginkortasunez eskura ditzakete aurkako ingurumenetan biziraupena ahalbidetu ditzaketen geneak, betiere ingurumen berean bizi badira. Hiru transferentzia-mekanismo mota daude bakterioen artean material genetikoa partekatzea ahalbidetzen dutenak: transformazioa, transdukzioa eta konjugazioa. Transformazioan, bakterioek zuzenean hartzen dute ingurumenean aske dagoen ADN. Transdukzioa bakterioen arteko birusen bitarteko trukaketa genetikoa da. Azkenik, bakterioen arteko kontaktu zuzenaren bidez gauzatzen da konjugazioa.

Plasmido eta transposoi konjugatiboak dira transferentzia honen erantzule. Konjugazioan, bakterio hartzaileak, AEGak barneratzeaz gain, jasotako AGEak transferitzeko gaitasuna hartzen du.

Ingurumen-, animalia- eta giza osasunean izan ditzaketen eraginak aztertzeko, bereziki garrantzitsua da arreta jartzea AEGak eskuratzeko, mobilizatzeko eta barreiatzeko plataforma genetikoetan. Horien artean, aipatzekoak dira hurrengo elementu genetiko mugikorrak (EGMak): integroiak (AEGak atzeman eta metatu ditzakete) eta plasmido eta transposoiak (lekualdatzen dira eta AEGak beste bakterio batzuetara sakabanatu ditzakete).

## 2. **ONGARRI ORGANIKOEN ERABILERA NEKAZARITZAN**

Lurzorua funtsezko baliabide natural mugatua da eta ezinbesteko zerbitzu ekologikoz hornitzen gaitu; elikagaiak birziklatu, ura eta airea araztu eta karbonoa biltegiratzen du, besteak beste. Gure elikagaien % 99 lurzoruetatik dator eta munduko biodibertsitatearen laurdena baino gehiago lurzoruetan dagoela estimatzen da [19]. Hortaz, lurzorua medio oso aberatsa da organismoen ugaritasun eta aniztasunari dagokionez. Gainera, lurzoruak etengabeko elkarrekintza du biosferako gainerako konpartimentuekin, hainbat nitxo ekologikoren arteko material genetikoaren trukea gertatzen baita bertan [20]. Ongarri organikoak nekazaritza-lurzoruetan aplikatzea ohiko praktika jasangarria da. Gainera, ongarri organikoak aplikatzeak lurzoruetan (i) egitura eta agregatuak hobetu, (ii) ura atxikitzeko gaitasuna areagotu, (iii) materia organikoa eta elikagaien edukia handitu, (iv) higadura eta degradazioa kontrolatu, (v) mikroorganismoen aktibitatea eta landareen hazkundea sustatu eta, (vi) klima aldaketaren aurrean, karbonoa biltegiratzeko gaitasuna areagotu dezakete [21, 22, 23, 24]. Ondorioz, ongarri organikoek lurzoruen osasuna eta uzten etekina hobetzeko ahalmena dute [25, 26].

Munduko egungo giza populazioa 7,7 bilioikoa dela estimatu ohi da eta 2050 urterako 9,6 bilioira iritsiko dela estimatzen da [27]. Giza populazioaren gorakada elikagaien ekoizpenaren igoerarekin lotuta dago. Geroz eta handiagoa den elikagaien eskaria asetzeko, abeltzaintza eta nekazaritza intentsiboez baliatzeko joera dago. Zoritxarrez, kudeaketa intentsibo hauek eragin larria dute dagoeneko hainbat zerbitzu eskaintzen dizkiguten ekosistemetan. Egoera honek ekoizpen-sistema jasangarriagoen aldeko trantsizioa eskatzen du, ziklo ekologikoen funtzionamendu eta printzipioetara gerturatu ahal izateko. Horren adibide dira bioekonomia eta ekonomia zirkularraren paradigmak, non bio-produktu eta hondakinak modu eraginkorrean integratzen diren sistema aktibo baliotsu gisa, oinarri dituztela berrerabilpena eta kudeaketa jasangarria [28]. Bestalde, nekazaritza birsortzailea prozesu ekologiko naturaletan oinarritzen da, praktika iraunkorrak susta-

tuz, lurraren emankortasuna zainduz, bioaniztasuna bultzatuz, ingurumena babestuz eta animalien ongizatea bermatuz. Gainera, nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpen ekologikoa Europako araudi batek erregulatzen du [29], helburu duena sintesiko produktu kimikoen erabilera baztertu eta ongarri organikoen balorizazioa bultzatzea [30]. Oro har, lurzoruetan aplikatzen diren ongarri organikoen kopurua gero eta handiagoa da nekazaritza birsortzaile edo ekologikoaren hedapenaren ondorioz. Europar Batasuneko nekazaritza ekologikoaren azalera % 70 handitu da azken hamarkadan [31]. Euskal Autonomia Erkidegoan ere goranzko joera du nekazaritza ekologikoak eta ekoizpen ekologikoa nekazaritza-azalera osoaren % 4,3 da gaur egun [32].

### 2.1. **Ongarri organiko motak**

Ongarri organikoen eragin agronomikoa era batekoa izan daiteke jatorriaren (abereak, hiria, nekazaritza, industria), materiaren egoeraren (likidoa, solidoa), kudeatzeko moduaren (heltzea, konpostajea, digestio anaerobikoa, etab.) eta aplikazio dosiaren arabera. Ongarri organikoen artean gaur egun gehien erabiltzen direnak animalia nahiz gizakien gorozki- eta gernujatorrikoak dira.

Mundu mailan, abereetatik eratorritako eta lurzoruetan aplikaturiko nitrogeno organiko kantitatea 116 milioi tona ingurukoa izan zen 2018. urtean [33]. Kopuru hau laborantza-lurretan erabiltzen diren ongarri sintetikoen kopuruaren antzekoa da [33]. Aipatzekoa da lurzoruetan aplikatutako abere-ongarri kantitatea handiagoa dela bazkatzearen ondorioz larreetan geratzen den kantitatea baino (8,4 vs. 4,8 milioi tona nitrogeno). Datu horrek agerian uzten du ganadu-ekoizpen intentsiboaren nagusitasuna, eta bazka-lurren eskuragarritasun mugatua [33].

Araztegiko lohiak ere baditugu: hondakin-uren araztegietako tratamendutik sortutako produktu erdi-solido birziklagarriak dira, eta nekazaritza-lurzoruetan lohien erabilera araututa dago EBn [34], helburu delarik gizakien, animalien eta landareen metal astunen toxikotasuna murriztea. Euskal Autonomi Erkidegoan oso mugatuta dago araztegiko lohiak nekazaritza-lurzoruetan aplikatzea [35]. Beste lurralde batzuetan, lohiak nekazaritzako lurzoruetan erabili aurretik, metodo egokiekin (biologikoa, kimikoa, termikoa eta biltegiratzea, besteak beste) tratatu behar dira, ondoriozko osasun arriskuak murrizteko. Lohi hauen konposizioa aldatu egiten da, hondakinuren araztegietan aplikatzen diren prozesuen, lohi gordinaren kantitatearen eta jatorriaren arabera. Dena dela, lohien aplikazioak lurzoruen emankortasuna eta landare nahiz lurzoruko mikrobiota osasuntsuak areagotu ditzake [36, 37], oinarrizko elikagaiak (nitrogenoa, fosforoa, potasioa) eta materia organikoa emendatzen baititu.

## 3. GIZAKIEN, ANIMALIEN ETA INGURUMENAREN OSASUNA: OSASUN BAKARRA

Gaur egun aurre egin beharreko gaixotasun infekziosoen dimentsioak eta mundu mailako ondorioek ez dute aurrekari historikorik. Gaixotasun infekzioso hauek jatorri zoonosikoa dute nagusiki; alegia, era naturalean animalietatik gizakietara transmititzen diren gaixotasunak dira. Ildo honetatik, Osasun Bakarra (*One Health* ingelesez) kontzeptuak ideia hau laburbiltzen du: berez lotuta eta elkarren menpe daudela giza osasuna, animalien osasuna eta ingurumenaren osasuna. Norberaren osasunak guztion osasunari eragiten dio, eta alderantziz. Mundu mailako estrategia honek ekosistema iraunkor orekatuago baten alde egiten du, eta nahitaezkoa da mehatxu hauen konplexutasuna diziplina anitzeko taldeek jorratzea, betiere Osasun Bakarraren ikuspuntutik lan eginez.

### 3.1. Antibiotikoen erabilera eta erresistentziak

Medikuntzan nahiz albaitaritzan antibiotikoak ezinbesteko tresna dira bakterio-infekzioak tratatzeko. Gehienbat bakterio-infekzioak tratatzeko erabiltzen diren arren, infekzioak prebenitzeko eta abereen hazkuntza sustatzeko ere erabiltzen dira. Antibiotikoek abereen elikagaiak xurgatzeko gaitasuna handitzen laguntzen dute eta, horrela, azkartu egiten da gizenketa prozesua. Dena dela, Munduko Osasun Erakundeak ez du gomendatzen prebentziorako erabilera [38]. Gainera, 2006an Europar Batasunak debekatu egin zuen antibiotikoak erabiltzea abereen hazkuntza sustatzeko [39].

2018. urteko antibiotikoen salmenta, soilik ustiategietako abereak kontuan hartuta, honela multzokatu zen Europako 31 herrialdetan, antibiotiko-familiaren arabera: tetraziklina, penizilina eta sulfonamida salmenten % 31, % 29 eta % 8 izan ziren, hurrenez hurren [40]. Gainera, abere-ustiategietan estimatutako antibiotikoen kontsumo globala 131.109 tonakoa izan zen 2013an [41]. Abeltzaintza- eta nekazaritza-sektoreek duten antibiotiko-kontsumoa gizakiok dugun elikagai-eskariarekin loturik dagoenez, abere-ekoizleen antibiotikoen kontsumoa > 200.000 tonatan zenbatesten da 2030 urterako [41].

Azken hamarkadetan, antibiotikoen gehiegizko erabilerak eta erabilera desegokiak mundu mailako osasun-arriskua eragin dute giza eta animalia-osasunean eta nekazaritzan. Bakterioak antibiotikoen eraginpean bizirauteko eta hazteko gai direnean antibiotikoekiko erresistentzia sortzen da. Hori gertatzen denean, bakterio erresistenteek infekzioa eragiten jarraitzen dute antibiotikoen presentzian ere. Geroz eta antibiotiko gehiagorekiko erresistente edo multierresistente diren bakterio gehiago daude, eta haiek sortzen dituzten gaixotasunak tratatzeak zailtasun larriak dakartza giza eta animalia-osasunean. Osasunaren Mundu Erakundeak 2019an munduko

giza osasunerako 10 mehatxu nagusienen artean sartu zuen antibiotikoen aurkako erresistentzia [42]. Berriki argitaratutako kalkulu batzuen arabera, 2019an 4,95 milioi heriotza egon ziren bakterio erresistenteei lotuta [43]. Neurririk hartu ezean, 2050ean urteko 10 milioi heriotza inguru espero da, eta ekonomiaren aldetik, berriz, 100 bilioi dolarreko galera metatua [44].

### 3.2. **Antibiotiko eta erresistentziak gorotz, ongarri organiko eta lurzoruetan**

Abere-gorozkietan antibiotikoak 1-10 mg $kg^{-1}$-ko tartean aurkitu ohi dira [45], baina kasu batzuetan erraz gainditzen da aipatutako tarte hori. Adibidez, ondorengo antibiotiko kontzentrazioak detektatu dira ikerketa batzuetan: 1420, 764, 216 eta 91 mg $kg^{-1}$; fluorokinolona, tetraziklina, β-laktamiko eta sulfamida, hurrenez hurren [46, 47, 48, 49]. Hondakin-uren araztegietako lohietan aurkitu ohi den antibiotiko-kontzentrazioa abere-gorozkietan aurkitzen dena baino txikiagoa izan ohi da [50]. Halaber, lohietan honako antibiotiko kontzentrazioak ere detektatu dira: 21.335, 8.326, 158 eta 133 $\mu$g $kg^{-1}$; fluorokinolona, tetraziklina, makrolido eta trimetoprima, hurrenez hurren [51, 52, 53].

Abereei emandako antibiotikoak ez dira osoki metabolizatzen eta gorozki eta gernuetan iraizten dira, bai jatorrizko antibiotiko gisa bai metabolito aktibo gisa [54]. Batez beste, emandako antibiotiko kopuruaren % 30-90 iraizten da, antibiotiko-klase, antibiotiko-dosi, antibiotikoa emateko forma, abere-espezie eta aberearen adinaren arabera ehunekoa aldatzen bada ere [45, 54, 55]. Kopuru esanguratsu hauek gorozki eta gernuetatik ingurumenera iristen dira, batik bat lurzoruetan abereetatik eratorritako ongarriak aplikatzen direnean (1. irudia). Antibiotikoen erdi-bizitza antibiotikoaren kontzentrazioa hasierakoaren erdira gutxitzeko behar den denbora gisa definitzen da. Parametro farmakozinetiko honek antibiotikoek ingurumenean izan dezaketen iraunkortasuna eta hautespen-presioa azal dezake. Esaterako, aminoglukosido, β-laktamiko, makrolido eta sulfamidek < 30 eguneko erdi-bizitza dute; fluorokinolonak eta tetraziklinek, aldiz, 100 egunekoa izan dezakete [56].

Immobilizazio edo degradazio urriaren ondorioz, antibiotiko askok ingurumenean irauten dute [57]. Antibiotikoak lurzoruan hainbat prozesu biotiko nahiz abiotikoren menpe daude, hala nola eraldaketa, degradazioa, adsorzio-desortzioa, landareen xurgapena, lurgaineko jariatzea eta lurpeko uretara iristea [58, 59, 60]. Lurzoruetan neurtutako antibiotikoen kontzentrazioak ng-mg gutxi batzuen artekoak izan ohi dira lurzoru kg bakoitzeko. Hala ere, abereetatik eratorritako ongarri organikoekin ongarritutako eta abereen bazkarako erabilitako lursailetako lurzoruetan antibiotiko kontzentrazio altuagoak aurkitu ohi dira. Esaterako, kontzentrazio maximo hauek detektatu ziren abereetatik eratorritako ongarriak jaso zituzten lurzoruetan:

86, 760 eta 204 $\mu$g kg$^{-1}$; tetraziklina, sulfamida eta fluorokinolona, hurrenez hurren [61, 62, 63].

Gainera, abereen hesteetan bakterio erresistenteen hautaketa bultzatzen dute antibiotikoek. Nahikoa da antibiotikoen kontzentrazioa ppb mailan aurkitzea AEGak mantendu eta transferentziaren prozesua laguntzeko [10]. Beraz, abereetatik eratorritako ongarri organikoak, antibiotikoen kutsadura-iturri izateaz gain, antibiotikoekiko erresistente diren bakterioen biltegi ere badira, bakterioek potentzialki AEGak hedatzeko gaitasuna baitute [64].




**1. irudia.** Antibiotikoen, antibiotikoekiko erresistentzia-geneen eta bakterio antibiotikoekiko erresistenteen esposizio-bidea animalia- eta giza jatorriko ongarri organikoak lurzoruan aplikatzerakoan.

### 3.3. **Erresistoma ingurumenetik gizakietara**

Aipatutako hesteetako bakterio horietako batzuk patogenoak izan daitezke gizakientzat, eta mehatxua nabarmen handitzen da bakterio hauek

AEGak eskuratzen badituzte. Ingurumenean AEGen presentzia antibiotiko bakterio-ekoizleetara mugatzen ez denez [65], eta lurzoruan dagoen bakterio-biodibertsitate hain handia kontutan hartuz, AEGen biltegi garrantzitsua da lurzoruari lotutako erresistoma (AEGak eta beren aitzindarien bilduma). Lurzoruko bakterio-komunitate anitzek inbasioen aurkako oztopo biologiko gisa ere jardun dezakete, bakterio-aniztasuna eta AEGen ugaritasuna negatiboki erlazionatuta baitaude [66, 67]. Zoritxarrez, jarduera antropogenikoek (nekazaritzaren intentsifikazioa, basoen ustiapena etab.) murriztu egiten dute lurzoruko mikroorganismoen aniztasun oparoa. Lurzorutik bertan ekoitzitako laboreetara zabaldu daiteke erresistomaren arriskua, eta handik gizakietara (1. irudia). Batez ere gordinik kontsumitzen diren barazkiak dira ingurumenetik eratorritako erresistoma gizakira iristeko esposizio biderik arriskutsuena [68], kozinatze-prozesuek arrisku hau asko murrizten baitute.

Bestalde, hainbat botila-lepok mugatzen dute AEG baten jatorrizko bakterio ostalaritik giza patogeno baterako transferentzia. Lehenak lotura ekologikoarekin du zerikusia: AEG bat transferitu ahal izateko, bakterio -emaileak zein -hartzaileak habitat bera partekatu behar dute edo, bestela, bakterio-kate batek elkartu behar ditu emailea eta hartzailea. Dena den, transferentzia-kateak arrakasta izan dezan, nahitaezkoa da erresistentzia-determinatzaileak hautaketa positiboa izatea [69]. Bigarrenik, fundatzaile-efektu deritzon fenomenoa gertatu daiteke, bakterio-hartzailera iristen den lehen AEGa soilik nagusitzen denean [70]. Hirugarren botila-lepoak gaitasun-kostuarekin du lotura: erresistentzia-determinatzaile bat eskuratzeak gaitasun-kostu bat gehitzen die bakterioei [71]. Hortaz, hautespen presiorik ezean, bakterio sentikorrek gainditu egingo dituzte erresistenteak. Alabaina, konpentsazio-mutazioak gertatzen direnean, murriztu egiten da bakterioetan erresistentziak mantentzearen kostua [72].

## 4. ONGARRI ORGANIKOEN KUDEAKETARAKO ALTERNATIBAK

Azaldu dugunez, lurzoruan animalia- edo giza jatorridun ongarri organikoak (simaurra eta minda) kudeaketa-prozesu zuzentzailerik gabe aplikatzeak handitu egin dezake antibiotikoen, antibiotikoekiko erresistentziadun bakterioen, AEGen, EGMen eta patogenoen ugaritasuna eta aniztasuna [73]. Egoera honen aurrean, erresistomaren barreiadura murrizteko, ezinbestekoa da ingurumenerako sarbide-puntuetan ahalik eta neurri prebentibo eta zuzentzaile zorrotzenak aplikatzea. Hemen segidan, erresistomaren arriskua ahalik eta gehien gutxitzeko erabil litezkeen ongarri organikoen maneiu-prozesuak proposatzen ditugu. Gainera, hainbat ikerketatan oinarrituta, proposatutako ongarri organikoen kudeaketa-prozesuen joerak laburbildu ditugu (1. taula).

**1. taula.** Ongarri organikoen kudeaketa-prozesuen ondorioz gertatutako antibiotikoen murrizketa-portzentajea eta murrizketa-joerak, hainbat ikerketatan oinarrituz.

| KONPOSTAJEA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Antibiotikoa | Jatorria | Egunak | Murrizketa (%) | Erreferentzia |
| Doxiziklina, klortetraziklina | Txerri simaurra, oilo simaurra | 21, 40 | 99,8-100 | [95, 96] |
| Enrofloxazina, norfloxazina, ziprofloxazina | Txerri simaurra, oilo simaurra | 56, 40 | 69->99,9 | [95, 96] |
| Florfenikola | Behi simaurra, lohia | 21 | 95-99 | [97] |
| Sulfadiazina, sulfadimetoxina, sulfametazina | Txerri simaurra, oilo simaurra, behi simaurra, lohia | 3, 40 | 97-100 | [95, 96, 97] |
| Eritromizina, tilosina | Oilo simaurra, behi simaurra, lohia | 21, 40 | 96->99,9 | [95, 97] |
| Trimetoprima | Oilo zirina | 40 | >99,9 | [95] |
| AEG | Jatorria | Egunak | Joera | Erreferentzia |
| ermA, ermB, ermF, ermX | Behi simaurra | 30 | 2,0 log kopia murriztu-2,0 log kopia igo | [77] |
| dfrA7 | Behi simaurra | 40 | % 3,7-9,8 igo | [98] |
| tetB, tetC, tetL, tetM, tetW | Behi simaurra | 30 | 3,2 log kopia murriztu-3,8 log kopia igo | [77] |
| tetC, tetL, tetM, tetQ, tetW, tetX | Behi simaurra | 40 | % 35,1 murriztu-% 41,5 igo | [98] |
| sul1, sul2 | Behi simaurra | 30 | 0,5-0,7 log kopia murriztu | [77] |
| sul1, sul2 | Behi simaurra | 40 | % 4,3-30,8 igo | [98] |

| DIGESTIO ANAEROBIKOA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Antibiotikoa | Jatorria | Egunak | Murrizketa (%) | Erreferentzia |
| Klortetraziklina, oxitetraziklina | Txerri simaurra | 31 | 53-92 | [99] |
| Sulfadiazina, sulfamerazina, sulfametazina, sulfametoxazola, sulfametoxina, sulfametoxipiridiazina, sulfatizola | Txerri simaurra | 34 | 0-100 | [78] |
| AEG | Jatorria | Egunak | Joera | Erreferentzia |
| Aminoglukosidoa, β-laktamikoa, bankomizina, fenikola, kinolona, MLSB, droga anitza, sulfamida, tetraziklina | Lohia | | % 70,3 murriztu-% 1050 igo | [79] |
| qnrA | Txerri simaurra | 90 | 3,8-27,4 log kopia igo | [81] |
| tetA, tetB, tetC, tetG, tetL, tetM, tetO, tetQ, tetW, tetX | Txerri simaurra | 49, 90 | 1,5 log kopia murriztu-2,8 log kopia igo | [80, 81] |
| intl1, intl2, ISCR1, Tn916/1545 | Txerri simaurra | 49, 90 | <1 log kopia murriztu- 0,08 log kopia igo | [80, 81] |
| BIO-IKATZA | | | | |
| Antibiotikoa | Jatorria | Dosia | Murrizketa (%) | Erreferentzia |
| Oxitetraziklina | Lurzorua, letxuga hostoa | % 2 | 10,7-39,0 | [57] |
| AEG-EGM | Jatorria | Dosia | Joera | Erreferentzia |
| tetC, tetG | Lurzorua | % 2 | % 32,5-84,3 murriztu | [57] |
| tetX | Lurzorua | % 2 | 1,5 log kopia igo | [57] |
| ermG, ermX | Lurzorua | % 2 | Mantendu | [57] |
| sul1, sul2 | Lurzorua | % 2 | Mantendu | [57] |
| intl1 | Lurzorua | % 2 | Mantendu | [57] |
| 89 AEG | Lurzorua | % 0.5 | Esanguratsuki murriztu AEG kopia absolutuak | [100] |

https://doi.org/10.1387/ekaia.23461

| AGORTUTAKO ONDDO-SUBSTRATUA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| AEG-EGM | Jatorria | Joera | | Erreferentzia |
| aac(6')-Ib-cr, dfrA7, ermQ, ermX, intl1, ISCR1, sul2, tetC, tetG, tetW, Tn916/1545 | Txerri simaurra | 0,03-1,67 log kopia murriztu | | [87] |
| ermF, sul1, tetX | Txerri simaurra | 0,08-0,87 log kopia igo | | [87] |
| blaTEM, blaCTX, ermB, ermC, ermF, sul1, sul2, tetB, tetG, tetL, tetM, tetO, tetZ, | Lurzorua | AEGen ugaritasuna murriztu oilo zirinarekin alderatuz | | [101] |
| NANOPARTIKULAK | | | | |
| Antibiotikoak | Jatorria | Dosia | Murrizketa (%) | Erreferentzia |
| Makrolidoa | Oilo simaurra | 300-600 nZVI mg $kg^{-1}$ | –57,1-100 | [94] |
| Sulfamida | Oilo simaurra | 300-600 nZVI mg $kg^{-1}$ | –950-100 | [94] |
| Tetraziklina | Oilo simaurra | 300-600 nZVI mg $kg^{-1}$ | –53,9-90,4 | [94] |
| AEG-EGM | Jatorria | Dosia | Joera | Erreferentzia |
| tetC, tetG, tetW | Oilo simaurra | 300-600 nZVI mg $kg^{-1}$ | % 22,6-76,8 murriztu | [94] |
| sul1, sul2 | Oilo simaurra | 300-600 nZVI mg $kg^{-1}$ | % 25,3-74,4 murriztu | [94] |
| blaOXA-1, blaTEM, ermB, ermF, intl1, mefA, sul1, sul2, tetM, tetO, tetQ, tetW, tetX | Janari hondakinak | 2000-5000 nZVI mg $L^{-1}$ | % 4,3-43,4 murriztu | [93] |

### 4.1. **Konpostajea**

Konpostajea abereen simaurra ongarri organiko bihurtzeko mikrobioprozesu aerobiko kontrolatua da; prozesua era batekoa edo bestekoa izango da konpostaje-teknologia eta baldintzen arabera [74]. Konpostaje-prozesuak neurri esanguratsuan murrizten du antibiotikoen kontzentrazioa, batez ere fase termofiloan [75]. Prozesuan zehar bakterio ostalaria deuseztatzearen emaitza ere bada AEGen ugaritasunaren murrizketa [76]. Dena den, konpostajean AEG eta EGMen ugaritasunaren gorako edo beherako joera gene bakoitzerako espezifikoa dela dirudi, neurri handian [77].

### 4.2. **Digestio anaerobikoa**

